



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2009ko urriaren 27a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:05

BUKATZEKO ORDUA: 20:20

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aztergai-zerrenda irakurri aurretik, talde mistoko zinegotzi Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die beste bi gai sartzeari aztergai-zerrendan, alde aurretik urgentziazkoak izendatu ondoren gehiengo absolutuaren quorumarekin: a) talde mistoko zinegotziek (Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegik) aurkeztutako mozioa, Orioko herrian sortutako hondakinak ez erretzea eskatzen duena eta Aralarko Iñaki Iturainek gai bera dela-eta aurkeztutako mozio alternatiboa; eta b) talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioa, espainiar estatuaren azken eraso errepresiboa salatzen duena.

Bi gai horiek urgentziazkoak izendatu eta, beraz, udalbatzarreko aztergai-zerrendan sartzeko, bozketa egiten da eta onartu egiten da, honako emaitzarekin: aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**, beraz gehiengo absolutua; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ABSTENTZIO**.



AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2009ko irailaren 29an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 20. sektorearen —Aizperro— plan partziala, NASIPA, SL entitate merkantilak sustatutakoa.
- 3.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Arraun Elkartearen udal instalazioak handitu eta berritzeko obren kontratazioa, arraunketa eta piraguismoko teknifikazio-zentroa instalatzeko.
- 4.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Antilla hondartzako 1., 2. eta 3. zenbakidun eraikinen kontzesio administratiboaren adjudikaziodunei Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko 2008. eta 2009. urteetako kanona jaistea.
- 6.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuen tarifen aldaketa, eragina 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 7.- Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2009KO IRAILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2009ko irailaren 29an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 20. SEKTOREAREN —AIZPERRO— PLAN PARTZIALA, NASIPA, SL ENTITATE MERKANTILAK SUSTATUTAKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; ekimen pribatuko plan partzial hori NASIPA SL entitate merkantilak sustatu du eta Patxi Gastaminza Santa Coloma arkitektoak idatzi du.



Udalak honako hau erabaki zuen 2009ko maiatzaren 4ko 187. zenbakidun alkate-dekretuaren bidez:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Arau Subsidiarioetako 20. sektoreko —Aizperro— plan partzialari. Plan partzial hori Patxi Gastaminza Santa Coloma arkitektoak idatzi du eta Udalean Iñigo de la Paz Zumalakarregik aurkeztu du, NASIPA SL entitate merkantilaren izenean..

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA hogeiei eguneko epean, interesatuek aukera izan dezaten aztertzeko eta, egoki bada, alegazioak aurkezteko udalbatzarraren aurrean.

3.- BIDALTZEA aipatutako plan partziala Uraren Euskal Agentziari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, dagozkien txostenak eman ditzaten.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogeiei lanegunez, EL DIARIO VASCO egunkarian 2009ko maiatzaren 19an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (89. zenbakian) 2009ko maiatzaren 15ean argitaratutako iragarkien bidez; beraz, alegazioak aurkezteko epea 2009/05/20an hasi zen eta 2009/06/11n bukatu zen.

Alegazioak aurkezteko epean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, baina Uraren Euskal Agentziak, 2009ko uztailaren 30eko txostenaren bidez, plan partzial horren aldeko txostena eman zuen, hainbat baldintza jarritz eta gogoraraziz obren sustatzaileak obra-baimena eskatu behar duela, baldintza horiek betetzen dituen proiektua aurkeztearekin batera.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Azpiegituretako Departamentuak, berriz, jakinarazi zuen plan partzial horretan proiektatutako eraikinetako batek ez zuela gordetzen beharrezko distantzia A-8 autopistarekiko eta, hortaz, proiektuan hori aldatu behar zela.

Udalak, bestalde, honako hau erabaki zuen 2009ko abuztuaren 13ko 305. zenbakidun alkate-dekretuaren bidez:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Arau Subsidiarioetako 20. sektoreko —Aizperro— plan partzialaren aldaketari. Plan partzial hori Patxi Gastaminza Santa Coloma arkitektoak idatzi du eta Udalean Iñigo de la Paz Zumalakarregik aurkeztu du, NASIPA SL entitate merkantilaren izenean..

2.- Espedientea JENDAURREAN JARTZEA hogeiei eguneko epean, interesatuek aukera izan dezaten aztertzeko eta, egoki bada, alegazioak aurkezteko udalbatzarraren aurrean.

3.- BIDALTZEA aipatutako plan partziala Uraren Euskal Agentziari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, dagozkien txostenak eman ditzaten.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogeiei lanegunez, EL DIARIO VASCO egunkarian 2009ko abuztuaren 20an eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (157.



zenbakian) 2009ko abuztuaren 21ean argitaratutako iragarkien bidez; beraz, alegazioak aurkezteko epea 2009/08/22an hasi zen eta 2009/09/14an bukatu zen.

Alegazioak aurkezteko epean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu, baina Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak honako hau informatu zuen 2009ko irailaren 1eko txostenean:

Agiria eta 2009ko maiatzeko dokumentazio osagarria aztertu ondoren, uste dugu errepideko babesgunerako aurreikuspenak onargarriak direla. Ondorioz, Departamentuaren eskumenei dagokienez, ez dugu eragozpenik ikusten plana onartzeko.

Era berean, Uraren Euskal Agentziak, 2009ko irailaren 2an egindako txostenean, plan partzial horren aldeko txostena eman zuen, obren sustatzaileari gogoraraziz obrak exekutatu baino lehen aginduzko baimena eskatu behar diola Uraren Euskal Agentziari eta, obrak baimentzeko eskaerarekin batera, obren exekuzio-proiektua aurkeztu behar duela; exekuzio-proiektu horrek bete egin beharko ditu Agentziaren txostenean ezarritako baldintzak; baldintza horiek honako hauek dira, txostenetik hitzez hitz jasota:

Ingurutik proiektatzen den bidea bitan zeharkatzen ditu Maniota erreka eta adarra, eta ez planoetan, ezta memorian ere, ez da definitu nola gaindituko diren bi ur-ibilgu horiek. Halaber, oinezkoen zaldain bat ere proiektatuta da erreka nagusiaren gainetik, ekipamenduko g.100 lurzatirako sarbide gisa.

Zubi-brankak atzeratu egin beharko dira, horien artean ibilgu osoa eta ezponda naturalak hartzeko.

Dagokion urbanizazio-proiektuan, urbanizazioak 500 urteko itzulketa-epealdiko uhaldiek urez ez gainezkatzeko moduan proiektatu direla eta proiektatutako pasabideek gehieneko uhaldi horiek husteko moduko ahalmen hidraulikoa dutela justifikatu beharko da.

Industria-lurzatiak egiteko harri-lubetzako horma ugari proiektatu dira; horiek erreketatik atzera eraman beharko dira, eta urbazterreko herrenkada bat berezko egoeran utzi.

Bestalde, oin-planoko planoetan irudikatutakoa ez dator bat 3.5. planoko 370. sekzioarekin. Tarte honetan, erreka ezkerreko ezpondak birlandatutako lurrezkoa izan beharko du. Orobat, ez da bane hartu uretan gora dagoen pabiloiaren sekzioa ere, eta eskuinaldean proiektatutako harri-lubeta atzera eraman beharko da, uretan beherako tarteetan egin den bezalaxe.

Aurkeztutako dokumentazioan adierazten da saneamendu-sarea A-8 autopistarako sarbide berriaren inguruan egongo dela, baina ez da definitu eremu horretarako aurreikusitako saneamendua nolakoa izango den eta zein epean egingo den, ezta "Aizperro" 20. sektoretik lotzeko kolektorea ere.

Baimentzeko igortzen den proiektuan, gainera, alderdi hauek bildu eta eremu berriko isurketak saneamendu orokorrera jarduerak hasi baino lehen lotuko direla egiaztatu beharko da.



Ikusita Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95. artikulua dioena plan partzialen tramitazioari buruz: bigarren atalari: *Udalak hasierako onespena edo ezespen arrazoitua emango dio plan partzialari. Lehenengo kasuan, jendaurrean jarriko du, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian edo egunkarietan hasierako onespena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera*; 95. artikulua horren hirugarren atalari, berriz, honakoa dio: *Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu bategin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onespena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da*; bosgarren atalari, osteraz, zera dio: *3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onespena behin betiko onespena izango da.*

Azaldutakoaren argitan, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 c) artikulua araberaz, Orioko Udalbatzarrari dagokio 20. sektoreko —Aizperro— plan partziala behin betikoz onartzea.

Plan partziala indarrean sartuko da behin betiko onarpena eta dagozkion ordenantza urbanistikoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean.

Ikusita aplikatzekoak diren lege eta arauzko aginduak eta ikusita Uraren Euskal Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuak emandako txostenak eta udal arkitektoak 2009ko martxoaren 30ean eta abuztuaren 3an emandako txostenak, Udalbatzarrak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-d —in fine— artikuluan ezarritakoa betez, Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2009ko urriaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA Orioko Arau Subsidiarioetako 20. sektoreko —Aizperro— plan partziala; plan partzial hori NASIPA SL entitate merkantilak sustatu du eta Patxi Gastaminza Santa Coloma arkitektoak idatzi du; onarpena baldintzatua da: Uraren Euskal Agentziak 2009ko irailaren 2ko txostenean ezarritako honako baldintza hauek bete beharko ditu sustatzaileak:

Ingurutik proiektatzen den bidea bitan zeharkatzen ditu Maniota erreka eta adarra, eta ez planoetan, ezta memorian ere, ez da definitu nola gaindituko diren bi ur-ibilgu horiek. Halaber, oinezkoen zaldain bat ere proiektatuta da erreka nagusiaren gainetik, ekipamenduko g.100 lurzatirako sarbide gisa.

Zubi-brankak atzeratu egin beharko dira, horien artean ibilgu osoa eta ezponda naturalak hartzeko.

Dagokion urbanizazio-proiektuan, urbanizazioak 500 urteko itzulketa-epealdiko uhaldiek urez ez gainezkatzeko moduan proiektatu direla eta proiektatutako pasabideek gehieneko uhaldi horiek husteko moduko ahalmen hidraulikoa dutela justifikatu beharko da.



Industria-lurzatiak egiteko harri-lubetzko horma ugari proiektatu dira; horiek erreketatik atzera eraman beharko dira, eta urbazterreko herrenkada bat berezko egoeran utzi.

Bestalde, oin-planoko planoetan irudikatutakoa ez dator bat 3.5. planoko 370. sekzioarekin. Tarte honetan, erreka ezkerreko ezpondak birlandatutako lurrezkoa izan beharko du. Orobat, ez da bane hartu uretan gora dagoen pabiloiaren sekzioa ere, eta eskuinaldean proiektatutako harri-lubeta atzera eraman beharko da, uretan beherako tarteetan egin den bezalaxe.

Aurkeztutako dokumentazioan adierazten da saneamendu-sarea A-8 autopistarako sarbide berriaren inguruan egongo dela, baina ez da definitu eremu horretarako aurreikusitako saneamendua nolakoa izango den eta zein epetan egingo den, ezta "Aizperro" 20. sektoretik lotzeko kolektorea ere.

Baimentzeko igortzen den proiektuan, gainera, alderdi hauek bildu eta eremu berriko isurketak saneamendu orokorrera jarduerak hasi baino lehen lotuko direla egiaztatu beharko da.

2.- BIDALTZEA aurreko erabakiak aipatzen duen plan partziala Gipuzkoako Foru Aldundira, planeamendu urbanistikoaren erregistro administratiboan jaso dezan, argitaratu aurretik.

Plana indarrean jar dadin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikulua aurreikusitako ondorioak sor ditzan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin betiko onarpeneko erabakiaren eta arau urbanistikoaren eduki osoa, berriaz adieraziz plan urbanistiko hori goian aipatutako erregistroan jaso geratu dela.

Behin betiko onarpenaren erabakia argitaratuko da, baita ere, lurralde historikoko hedapen handieneko egunkari(et)an.

3.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUN ELKARTEAREN UDAL INSTALAZIOAK HANDITU ETA BERRITZEKO OBREN KONTRATAZIOA, ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO-ZENTROA INSTALATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira lehiaketara:

- 1.- BRUESA, SA
- 2.- MURIAS, SA
- 3.- ANTZIBAR, SA
- 4.- GALDIANO, SA



- 5.- SUKIA, SA
- 6.- OBEGISA - BIKANI
- 7.- AMENABAR, SA
- 8.- EBA, SL
- 9.- LURGOIEN, SA
- 10.- ALTUNA Y URIA, SA
- 11.- DC – IC – VALLE ULZAMA
- 12.- MOYUA, SL
- 13.- ACCIONA – EGUZKI ERAIKUNTZAK, SL

Kontratazio mahaiak, udal arkitektoak 2009ko urriaren 5ean emandako txosten teknikoari kasu eginez, proposatzen du aipatutako obren kontratazioa CONSTRUCCIONES AMENABAR SA Sozietate Merkantilari adjudikatzea, berea delako puntuaziorik altuena lortu duen proposamena, Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren 16. artikuluan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2009ko irailaren 28an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- BEHIN-BEHINGOZ ADJUDIKATZEA CONSTRUCCIONES AMENABAR SA sozietate merkantilari Orioko Arraun Elkartearen udal instalazioak handitu eta berritzeko obren kontratazioa, arraunketa eta piraguismoko teknifikazio-zentroa instalatzeko; obren adjudikazio-prezioa 3.214.627,31 eurokoa da, gehi 514.340,37 euro, BEZaren %16ari dagokiona, —gastu orokorrak eta mozkin industrialak barne—.

Behin-behineko adjudikazio hau **BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIO** bihurtuko da, behin adjudikaziodunak aurkezten duenean dagokion dokumentazioa, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (160.731,37 eurokoa) aurkezten duenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen iragarkia argitaratu eta hamabost laneguneko epean.

3.- ITZULTZEA lehiaketa honetan parte hartu duten lehiatzaileek aurkeztutako behin-behineko fidantzak.

4.- JAKINARAZTEA erabaki hau enpresa lizitatzaille guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsioak azalduz.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2010EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2009ko urriaren 21eko Hazienda, Pertsonal eta Kalitate batzorde informatzailean diktaminatu da.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

MAHAI GAINEAN UZTEA ordenantza fiskalak eta eranskinak aldatzeko proposamena **HARIK ETA** honako gai hauek diktaminatzen ez diren arte: trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena lortzeko minusbaliatuek bete behar dituzten baldintzak, udal erabilera publikoko lurrak kutxazain automatikoekin okupatzeagatik ordaindu beharreko tasak, Orioko Musika Eskolako irakaskuntza-tasak eta, azkenik, udal kanpina eta udal kiroldegia erabiltzeagatik tarifak. Hamar laneguneko epearen barruan udalbatzarra bilduko da berriz, ezohiko bilkuran, gaia erabakitzeko. Hori guztia honako helburuarekin: aginduzko 30 laneguneko jendaurreko epea pasa ondoren (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratu ondoren kontatzen hasita), ordenantza fiskalen eta eranskinen aldaketa 2009. urtea bukatu aurretik argitaratu ahal izatea GAOn, aldaketa hori indarrean sar dadin 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 1., 2. ETA 3. ZENBAKIDUN ERAIKINEN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN ADJUDIKAZIODUNEI UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA-ZERBITZUAK USTIATZEKO 2008. ETA 2009. URTEETAKO KANONA JAISTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Hazienda eta Pertsonala batzordeak egindako proposamena honako hau da: Orioko Antilla hondartzako 1., 2. eta 3. zenbakidun eraikinen kontzesio administratiboaren adjudikaziodunei Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanona %15 jaistea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, interes publikoko arrazoiengatik eta gaiari datxezkion zirkunstantzia bereziak kontuan hartuta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **LAU ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **ZAZPI ABSTENTZIO BOTO**]:



ONARTZEA Orioko Antilla hondartzako 1., 2. eta 3. zenbakidun eraikinen kontzesio administratiboaren adjudikaziodunei Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanona %15 jaitea.

Nolanahi ere, 2. zenbakidun eraikinaren okupazioaren adjudikaziodunak, Xabier Urretabizkaia Lizarribarrek, 38.299,60 euroko abala aurkeztu beharko du udal bulegoetan alde aurretik, kontzesio administratiboaren adjudikazioa dela-eta bere gain hartu zituen obligazioak bermatzeko; ez badu abal hori aurkezten, ez zaio aplikatuko %15eko jaitsiera 2008ko eta 2009ko ustiaketa-kanonetan.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUEN TARIFEN ALDAKETA, ERAGINA 2010EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak eskaria aurkeztu du, 2010ean auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzea proposatuz; tarifa berrien proposamenarekin batera, ustiaketa kostuen azterketa ere aurkeztu du.

Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak bilera egin zuen 2009ko irailaren 15ean eta bertan oniritzia eman zion auto-taxi zerbitzuaren tarifak 2010ean izozteari eta tarifa berri bat (5) aplikatzeari, egun eta ordu jakinetan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2009ko urriaren 5ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

EZ ONARTZEA ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI formulatu duen eta Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak 2009ko irailaren 15eko bileran berretsi duen 2010eko auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzeko proposamena, honako arrazoiagatik: udalbatzarra tarifak izoztearekin bat baldin badator ere, ez dator bat tarifa berria (5) aplikatzearekin, zeren eta tarifa berri hori 2. tarifari %25 gehitzetik sortzen baita.

Aztergai-zerrendatik kanpo eta alde aurretik udalbatzarkideen gehiengoak urgentziazkotzat jo ondoren (sei aldeko boto), udalbatzarrak honako erabakiak **HARTU DITU**:

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ORIOKO HERRIAN SORTUTAKO HONDAKINAK EZ ERRETZEA ESKATZEN DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

GAIA: ORIOKO UDALERRIAN SORTUTAKO HONDAKINAK EZ ERRETZEKO ESKARIA



Usurbilgo herriak, aintzat hartu du Usurbilen ez ezik, Gipuzkoan dagoen hondakinen arazoa. Ohartu da hondakinen kudeaketa arazoa gero eta handiago bihurtzen ari dela eta bihurtuko dela baldin eta Instituzio Publikoetatik bultzatzen den eredia jarraitzen bada, errausketa. Arazoari irtenbidea eman beharra dagoela ere argi eta garbi dago; irtenbidea emateko baina, herriak eta Instituzio Publikoek, eta beraz, zenbait agintari politikoek, hartutako bideak ez datoz bat. Instituzioak, hots Gipuzkoako Foru Aldundiak, hondakinak erretzea, errausketa planteatzen du arazoaren konponbide bakar gisa (konponbide bakarra, ala errazena eta interesatuena?). Herriak berriz, hondakinen bilketa selektiboa egitea aukeratu du. Aukera eta irtenbide eredugarria gainera. Izan ere, gaika biltzeak birziklagarriak diren eta egun zabortegira botatzen diren materialak berreskuratzea eta berrerabiltzea ekarri du. Horretan ari dira Usurbilgo udalerriko ia 6.000 biztanleak. Egun, martxoaren 16tik, Usurbilgo udalerrian hondakinak gaika biltzen dira; asteke egun bakoitzean dagokion hondakin atala etxe etxez biltzen dira. Horrek zer esan nahi du, besteak beste:

1.- Zabortegira %80 botatzetik %20 botatzen dela. Ez da ez gau erdiko ahuntzaren eztula! ingurumenaren eta norberaren zein guztion osasunaren alde herriko biztanle bakoitzak egiten duena.

2.- Hondakin atal bakoitzaren kalitate maila izugarria da, hots, ontzietan biltzen den material ezegokiaren portzentaia %11 da, harrigarria! sailkatze plantan bertan esandako hitzak. Norberak gutxiago sortzea ekarri du, zergatik? Behingoagatik ohartu garelako zenbat hondakin sortzen dugun. Orain arte, hondakina sortu ahala desagertu egiten zen. Orain berriz, ikusi egiten dira, anonimotasuna galdu du; norberak ikusi dezake zenbat sortzen duen: gehiegi! Eta komenigarria da beti gogoan izatea ondorengo esamoldea: "Errazen deuseztatzen den hondakina sortzen ez dena da."

3.- Legeak eskatzen duena beteko dugu; 5000 biztanletik gorako udalerrri guztiak, legez behartuta daude frakzioa guztiak, organikoa barne, gaika biltzera. (10/98 Estatuko Hondakinen Legeak eta 2001ko 1481 Errege Dekretuak, Europako direktibaren tranposizioek dioten bezala).

4.- Bideragarria da, bai teknikoki baita ekonomikoki ere

Errauste plantek Ingurumenean egiten duten kalteaz gain, pertsonen osasunean egindako kaltea larria da oso.

Azken hamarkadetan, minbizia, alergia eta ugalkortasun-arazoak areagotu egin dira eta horren arrazoi nagusietako bat ingurumenean dauden poluitzaile kimikoen tasa altuak dira.

2004ean, UNESCOko egoitzaetik egindako "Pariseko deiak", egoeraren larritasunaz ohartarazi eta poluzio kimikoaren kontrako neurriak hartzea presazkoa zela ohartarazi zuen. Dei horretan hainbat zientzialarik eta medikuk, tartean Nobel saridunak, hartu zuen parte eta salatzen zutenez, erraustegiak ere sartzen dira poluitzaileen artean.



Izan ere, mendebaldean, hondakin arriskutsuak eta etxeko hondakinak erretzeko erabiltzen diren erraustegiak benetako erreaktore kimikoak dira. Hau da, hondakin solido heterogeneoa erre egiten dute eta hori guztia gas toxiko, ur-isuri zikin eta errauts bihurtzen dute. Hondakinak airearen, lurraren eta uraren poluzioa bihurtzen dituen teknologia dira.

Hondakinak nahastuta errez, erreakzio kimiko ezezagunak gertatzen dira errauskailuan eta ezin da jakin zehazki zein substantzia kimiko aireratzen den. Gainera erretzen dena, egunero aldatzen denez, kontrola ezina da. Dena den, jakina da airera jaurtitzen diren substantzia horietatik asko iraunkorrak direla, biometagarriak. Hau da, denborarekin ez dira desagertzen eta elikadura-katean metatu egiten dira. Gizakia elikadura-kateko azken katebegia dela kontuan izanda, zehazki zein substantzia kimiko sortzen den ez jakitea oso arriskutsua da gure osasunerako.

Gainera, nahasketengatik, maiz sortzen den substantzia kimiko berria hasierakoa baino arriskutsuagoa da; hala nola, dioxinak eta furanoak, metal astun lurrunkorrak edo erre gabe geratzen diren errautsak. Horregatik, erraustegiak azken belaunaldikoak izanagatik ere, teknologia oso arriskutsua dira, hondakinen arazoa ez dute behar bezala konpontzen eta, gainera, arazo berriak sortzen dituzte. Izan ere, 10 tona hondakin 3 tona errauts eta zepak bihurtzea ez da inondik ere arazoa konpontzea.

HONDAKINAK ERRAUSTEKO INDUSTRIAREN KALTE NAGUSIAK

Dioxinak eta furanoak elikadura-katean

Dioxinak materia organikoa kloroa duten beste material batzuekin (plastikoekin) batera erretzean sortzen diren konposatu organikoak dira; oso egonkorak dira: uretan zein lurrean hamarkadak iraun ditzakete alteratu gabe.

Dioxinek osasunerako daukaten arriskurik handiena elikadura-katean sartzeko duten erraztasuna da. Dioxinak animalien gantzetan pilatzen dira, eta hasieran dioxina-maila txikia izan arren, elikadura-katean aurrera egin ahala, geroz eta proportzio altuagoa hartzen dute. Ezin dugu ahaztu, gainera, kate horren bukaeran gizakia dagoela.

Komunitate zientifikoaren iritziz, dioxinen toxizitatea ukazina da, batez ere, gizakiei dagokienean. Horrela, 90 hamarkadatik onartzen da dioxinek gizakiengan ere minbizia eragin dezaketela. USEPAk (Estatu Batuetako Ingurugiroaren Babeserako Agentzia) 1994ko informean onartu zuen dioxinek minbizia sortzen dutela gizakiengan eta dosi txikiagoetan, berriz, inmunitate-sisteman, ugalketa-sisteman eta sistema endokrinoan alterazioak sor ditzaketela. Era berean, 1997an, Minbiziaren Ikerketarako Nazioarteko Agentziak (IARC), dioxinak lehen motako kantzerigeno bezala sailkatu zituen.

Kalte horiek guztiak hainbat lekutako esperientziek frogatu izan dituzte. Esaterako, 1989an, Rinjmond-en (Rotterdam) eta, 1998an, Lille-ko (Frantzia) erraustegietatik gertu gertatutakoek argi erakusten dute industria horren arriskua. Bi kasuetan, erraustegiaren inguruko larreetan bazkatzen ziren behiek onartzen zena baino gantz



gehiago zeukaten eta, ondorioz, urte batzuez galarazi egin zuten behi horien esne eta esnekien salmenta.

Bestalde, Journal of Epidemiology and Community Health aldizkarian 2003an argitaratutako ikerketen arabera, erraustegietatik gertu bizi diren emakumeek arrisku handia dutela hilik jaiotzen diren haurrak edo jaiotzetiko malformazioak dituztenak edukitzeko. Emaitzak, 1956 eta 1993 artean, Cumbrian (Ingalaterra) eskualdeko jaiotzen inguruan burututako ikerketa batean oinarritzen dira. Erraustegien presentzia oso lotua zegoen bizkarrezur bifidoarekin, sortzetiko bihotz akatsekin eta anenzefaliarekin jaiotako haurren gehitzearekin. Izan ere, dioxinak plazentaren barrura sartzen dira eta zuzenean eragiten diote fetolari eta amaren esnearen bidez ere irits dakiok jaioberriari.

Urtetik urtera egin diren azterketa zientifikoek demostratu dute ez dagoela dioxina maila onargarritik. Horrela, 1990ean Osasunaren Mundu Erakundeak maila onargarria 10 pikogramotan (0,000000000001 g)jarri arren, 1998an, Estatu Batuetak USEPAk maila hori eguneko 0,01 pg-tan ezarri zuen. Horrek esan nahi du, dioxinak metatzen direlako, urteetan zehar izan dezaketen eragina hartu behar dela aintzat eta ez egun bakar batean sor dezakeen kaltea.

Bestelako ondorioak

•Erraustegietako hondakinek gizakiaren osasunean duten kalteaz gain, ingurumenean duten eragina ere kontuan izan behar da. Erraustegiek CO2a eta berotegi efektua duten gasak jaurtitzen dituzte eta nabarmen daude kontraesanean Kiotoko protokoloak jartzen duenarekin.

•Europako hainbat erakundetako, Europar Batasuneko eta Nazio Batuen Erakundeak 1200 osasun- eta ingurumen-aditu baino gehiagok zalantza izpirik gabe adierazi dute erraustegiak kaltegarriak direla gizakiaren osasunerako eta ingurumenerako.

Instalazio horiek, oso modernoak izanagatik:

•Lurzorua, airea eta ura kutsatzen dituzte

•Osasun publikoa kaltetzen dute.

•Hondakinak gutxitu, berrerabili eta birziklatzeko aukeren kaltean, ikaragarri diru piloa xahutzen dute

Energia lortzeko aitzakiarekin, birziklatu daitezkeen material asko alferrik deusezten dituzte, ondoren material berriak berriro sortaraztea behartuz eta askoz energia gehiago kontsumituz.

• Hondakinen prebentzioaren ikuspegi arrazionalagoak ahultzen dituzte

• Arazoz, akatsez eta larritasunez jositako esperientzia luzea dute



- Maiz, gainditu egiten dituzte legeak ezarritako mailak eta errautsak eta zepak edo eskoriak, ez dituzte behar bezala bideratzen.

Erraustegiak ez dira sakoneko arazoa konpontzeko bidea. Ez da posible gas eta hondakin arriskutsuak sortzen dituen eta atmosfera hainbeste substantzia kimikoz kutxatzen duen industria irtenbidetzat jotzea. Hau da, erraustegiek konpontzea planteatzen dituzten arazoak areagotu baizik ez dute egiten. Etengabe hazten ari den hondakin-produkzioari mugak jarri beharrean, beraien labeak asetzeko ahalik eta hondakin gehien sortzea bilatzen dute, horrela soilik lortzen baita labe horien errentagarritasun ekonomikoa. Energia berreskuratzen dutela dioen argudioa ere ez da baliagarria: labe horietatik sortzen den energia, erretzen den materiala sortzeko behar dena baino sei aldiz txikiagoa da.

Ezinbestekoa da beste aukera batzuk aztertzea.

Ez dute indarrean dagoen legea betetzen

Erraustegien aldeko apustua egiteak legea ez betetzea dakar. Europar Batasuna, Espainiar Estatuak, Autonomia Erkidegoa eta Foru Aldundiaren araudi guztiek agintzen dute, hiri hondakinen kudeaketan errausketa baino lehen birziklatzea eta konposta egitea lehenetsi behar direla. Hala, espainiar estatuko hondakinen oinarriko legediak (98/10 legea), 5.000 biztanletik gorako herrietan, etxeko hondakinetako fermentatu daitezkeen materia organikoa bereizita biltzea eskatzen du. Lege hori, beranduenez 200leko urtarrilaren 1etik bete behar zen, baina Gipuzkoan ez da inoiz aplikatu izan eta egoera horren aurrean autoritateek begiak ixten dituzte.

Orain, erraustegien aldeko apustua eginda nekez egingo da lege horren alde. Izan ere, erraustegiek udalekin izenpetu ohi dituzten hitzarmenek egunean hondakin-kantitate jakin bat erretzea eskatzen dute, bestela ez baitira errentagarriak. Eta, baldintza horrek hondakin gutxiago sortzeko helburua duen edo birziklatzearen aldeko edozein ekimen etsipenean uzten du eta, gainera, horretara bideratu beharreko diru guztiak xahutzen ditu.

Norabide berean, hondakinen 2007-2015 Plan Nazional Integratuak, ingurumen analisien bitartez, hondakinetan egiten diren salbuespenak justifikatzeko eskatzen du eta errausketa berrerabili edo birziklatu ezin daitezkeen hondakinetarako mugatzen du. Plan horrek materia organikoa bereizita jasotzeko jartzen dituen mailak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Progresuaren Dokumentuak jartzen dituen baina baxuagoak dira, teoriarik berdinak edo handiagoak izan behar luketenean.

Azkenik, Nazio Batuen Estokolmoko Konbenioa (2001eko maiatzaren 22a) ere ez du betetzen. Konbenio horren helburu nagusia planetatik 12 Poluitzaile Organiko Iraunkorrek, besteak beste, dioxinak eta furanoak desagertaraztea da. Espainiak konbenio hori sinatu zuen eta 2004ko maiatzaren 28an berretsi, baina erraustegien aldeko apustua eginda, nekez beteko du bertan ezarritakoa, industria horrek atmosferara hainbat gas jaurtitzen baitu.



Hondakin guztiak batera eta nahasian jasota ezinezkoa da legea betetzea eta, hain zuzen ere, legedi guztiek onartzen dute bilketa bereizia egiteko ahalegin handiagoa egin behar dela, batez ere materia organikoa jasotzeko.

Hondakinak erretzeak gasen emisioa dakar, hots, negutegi efektua eragiteaz gain, azterketa epidemiologiko gaurkotu askok egiaztatu dutenez, minbizia, ugalkortasuna, arnasketa-eraginak, e.a. metagarriak dira. Ez dugu ahaztu behar, aurten ekainaren 5ean, Nazioarteko Ingurumenaren Eguna ospatuko dugula urter1e. Aurtengo leloa "Klima Aldaketa. Jarduketa eta eraginkortasuna". Beraz, ondorengo puntuak onartu ditzala eskatu nahi diogu Udalbatzarrari:

1.- Orion sortutako hondakinak ez direla erraustera bideratuko.

2.- Usurbilen atez ateko bilketa sistemarekin lortutako emaitzak ikusita, Gipuzkoako Diputazioari eta Donostiako Udalari eskatzen diegu Zubietan egin nahi duten errauste plantaren proiektua behin betiko bertan behera uztea.

3.- Gipuzkoako Diputazioari eskatzen diegu errausketaren aldeko bidea alboratzea eta birziklatze maila altuenak lortzen dituen Atez Ateko bilketa sistemaren aldeko apustu argi eta garbia egitea.

4.- Ez dugu gure udalerrian errauste plantarik onartuko eta Gipuzkoako Diputazioari eskatzen diegu beste inon ez egiteko.

Ondoren, Iñaki Iturain zinegotziak Aralarren izenean aurkeztu duen mozio alternatiboa irakurtzen da. Mozioa zaborren gestioaren eredia aldatzeari buruzkoa da eta honela dio, hitzez hitz:

ZABORREN KUDEAKETAREN EREDUA ALDATZEKO MOZIOA

Aralarrek ez du bat egiten Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu duen eta garatzen ari den zaborren kudeaketa ereduarekin. Zaborren kudeaketa zikloak ez dituelako kontuan hartzen gure ustez oinarrizkoak diren irizpideak:

- Hondakinen kudeaketa iraunkorra (iraunkortasuna bere zentzurik zabalenean ulertuz), eta iraunkortasun ambiental, soziala eta ekonomikoa

- Hurbiltasun printzipioa, sortzen diren tokitik ahalik eta hurbilen tratatzea

- Prebentzioa oinarri duena, zaborrak ahalik eta gutxien sortzea irizpide nagusi duena eta horretan indarra egiten duena

- Gastu energetikoan aurreztu eta ahalik eta energia gehien sortuko duena, hots efizientzia energetikoa oinarri izango duena kudeaketaren ziklo osoan

- Gaikako bilketa osotasunean kontuan hartuko duena

- Azpiegitura erraldoiak saihestuko dituen

- Zabortege espezializatuak, gaurko garaikoak jasoko dituen



- Ingurukoengan eragin negatiborik sortuko ez duena: ez usainik eta ez lixibiaturik
- Eta teknologia aurreratuak oinarri dituen azpiegituraz baliatuko den kudeaketa garatuko duena.

Errausketa da oraindik ere plangintzaren ardatza. Errausketa azpiegitura erraldoietan oinarritzen da, efizientzia energetikoan galdu egiten da eta kutsadura sortzen du, eta lohien kudeaketa iraunkorra eta integrala baztertzen du.

Inork ezin dezake ukatu araztegiek sortzen dituzten lohiekin arazo larria daukagula Gipuzkoan; zehazki, lohien kudeaketarekin. Gutxi gora behera urtean, 35.000 tonaz ari gara hitz egiten, zabortegietan edo eta zementeretan bukatzen dutenak.

Araztegiko lohien kudeaketa eredu jasangarri batean oinarritu behar da eta, horretarako, beharrezkoa da hori ahalbidetuko duen estrategia diseinatzea, lohiak balio erantsiko produktu bihurtzeko, zehazki ongari granulatu.

Bestalde, errausketaren aldeko erabakia hartu zela badira urte batzuk. Horrek esan nahi du, azken urteetan egin diren aurrerapenak ez direla kontuan hartuak izan. Errausketarik gabeko alternatiba serioak gero eta gehiago dira, eta pena litzateke Europan eraikitzen den azken erraustegia Gipuzkoakoa izatea.

Aralarren aburuz, ekosistema aurreratuen aldeko apustua egin beharko litzateke, gaiak sailkatuz eta birbaloratuz, kutsadura-isurketa minimoak dituzten ereduak aldeko apustua, ahal izanez gero isurketarik gabe, eta energetikoki eraginkor direnen aldekoa. Azken batean, energia berriztagarrien aldeko apustua. Gainera, tokian-tokian inplementatuz, hots eskualdeka. Sailkatze eta birbaloratze sistema hauek bolumena %80ra jaitsiko lukete eta birziklapena %90era hurbildu; ondorioz, momentu honetan PIGRUGeko aurrerapen dokumentuan planteatzen diren helburuak neurri handi batean aberastuz. Kontenedore berdean (erabilpen orokorrekoan) sailkatuko liratekeen metalak eta beirak birziklatzeko azpiegiturak bideratuko lirateke. Energia lortzeko balio duten frakzioak berriz, hau da plastikoa, egurra eta materia organikoa, errausketa ez den balorazio energetiko plantara bideratu eta energia berriztagarria lortzeko litzateke.

Gogoratu energia berriztagarria lortzeko azpiegitura hauek kutsadura isurketarik ez dutela sortzen eta energetikoki eraginkorrak direla errausketa plantak baino. Egia da, errausketaren isurketa kutsagarriak txikiak izan daitezkeela, baina hori kudeatzailearen irizpidearen arabera da; emisio horiek, ezarritako filtro eta tratamenduen arabera baitira. Eta noski, horrek kostu ekonomikoa du. Halaber, errausketa bideragarri izateko bolumen eta kantitate handiak behar dira, eta tonako ateratzen den energia txikiagoa da birbaloratze plantatik ateratzen denarekin alderatuta.

Tokian tokiko sailkatze eta birbaloratze azpiegitura hauekin batera, konpostaje programarekin martxan jarraituko genuke; masa kritikoa heltzen den tokietan, biometanizazioa gehituz.

Laburbilduz, eskualdeka: kontenedore guztiak ezarri (marroia barne) + konpostaje plantak + sailkatze azpiegiturak (trituradora + autoklabea + sailkatze automatiko-



mekanikoa), sailkatutako beira eta metalak birziklatu ohiko zirkuituetan, gai organikoa, egurra eta plastikoa energetikoki era iraunkorrean birbaloratu (hauek mota ezberdinetakoak izan daitezke: gasifikazioa, edo tratamendu termokatalitikoak, gas naturala, diesela, elektrizitatea... atereaz). Halaber, garbi utzi nahi dugu bilketarako fasean kontenedoreak zein atez atekoa ikusten ditugula, baita bien arteko eredu mixto bat ere. Bilketa fase horretan, eskualdeko ezaugarriei ondoen egokituko zaien ereduak aukeratuko da, betiere bideragarritasun ekonomikoa eta ambientala bermatzen denean.

Kontuan har dezagun, errausketaren teknologia zaharkitzen ari dela, eta gehiegizko sinplifikazio batek, edo arreta gehiago ez jartzeak, aukera onenak ez hautatzera eramán gaitzakeela.

Hori guztia kontuan izanik, Orioko udalbatzak ondorengo puntuak onartzen ditu:

1.- Orioko Udala errausketa planta ardatz duen hondakinen kudeaketaren aurka dago. Beraz dei egiten dio Gipuzkoako Aldundiari errausketaren bidea alboratzeko.

2.- Orioko herriak zaborren kudeaketa integral baten alde egiten du, ingurumena errespetatu eta ekonomikoki bideragarria izango den eredu baten alde. Zentzu honetan, bilketa fasean balekotzat jotzen ditugu bai atez atekoa bai bost eduki-ontziena.

3.- Hartutako erabakiaren berri Gipuzkoako Aldundiari eta Hondakinen Kontsortzioari ematea.

lñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du baiezko botoa emango diola, osotasunean, talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioari; baina abstenitu egiten dela mozioaren lehen puntuaren onarpenari dagokionez, hau da, Orion sortutako hondakinak erraustegira ez direla bideratuko dioen puntuari dagokionez.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du zabor-bilketaren eta zaborraren tratamenduaren gaia araututa dagoela dagoeneko Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralean, eta plan horretan arautzen direla, erraustegiaren instalazioaren gaiaz gain, beste hainbat kontu ere, zaborren ziklo integralarekin zerikusia dutenak: hondakin organikoak biltzeko bosgarren edukiontzia, zaborrak tratatzeko instalazioak, konpostajeko instalazioak eta abar.

Talde mistoko zinegotzi Leire Zinkunegik hartzen du hitza eta adierazten du bere taldeak apustu egiten duela zabor-bilketaren gestioari gizarte-eragile guztien artean aurre egitearen alde, eta adierazten du Europatik gogorarazten digutela erraustegiaren aldeko apustua egitea atzera egitea dela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakok ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:



ONARTZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, Orioko herrian sortutako hondakinak ez erretzea eskatzeari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Era berean, Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA lñaki Iturain zinegotziak Aralarren izenean aurkeztutako mozioa, zaborren gestio-eredua aldatzeari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza, talde mistoaren izenean, eta adierazten du bere taldeak baiezko botoa eman diola, osotasunean, Aralarren mozioa onartzeari; baina, mozioaren bigarren puntuari dagokionez, zabor-bilketarako bosgarren edukiontziaaren instalazioaz ari denean, abstenitu egiten direla.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ESPAINIAR ESTATUAREN AZKEN ERASO ERREPRESIBOA SALATZEN DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

ESPAINIAR ESTATUAREN AZKEN ERASO ERREPRESIBOAREN AURREAN MOZIOA

Urriaren 13an euskal independentisten aurkako beste operazio poliziala eta judicial bat burutu zuten. Horren ondorioz, Euskal Herriaren eskubideen defentsan aritu diren ezker abertzaleko hamar militanteak atxilotu zituzten. Egun batzuk geroago, preso politikoaren eskubideen defentsan aritu diren beste zortzi lagun atxilotu eta espetxeratu zituzten.

Joan den urriaren 17an milaka eta milaka gizon eta emakumeek Donostiako kaleak bete zituzten. Gehiengo zabal batek beste behin ere, agerian utzi zuen inposatu nahi diguten blokeo egoera honen aurrean ez dagoela prest subjektu pasiboa izateko. Gehiengo sindikalak egindako deialdi bateratuak jasotako atxikimendu eta babes zabalak argi erakutsi zuen mota honetako inizatibak direla jendartea eskatzen ari dena.

PPk eta PSOEek 2001eko abenduan sinatu zuten itun antiterroristaren babespean, espainiar estatua benetako genozidio politiko bat egiten ari da. Eta horrekin amaitu beharra daukagu. Azken aste hauetan burutu diren atxilotetak eta espetxeratzeko agindu horien atzean, estatuak ideia jakin batzuk dituzten herritarrei parte hartze politikorako eskubidea ukatzeko jarrera politikoa ezkututzen du. Baita ere, euskal preso politikoaren eskubideen defentsan aritu diren pertsonen espetxeratzek agerian uzten du, estatua estrategia errepresiboaren baitan lerrokatuta dagoela.



Izan ere, estatuak justizia helburu politikoak lortzeko erabiltzen duela salatu behar dugu. Horren adibide ditugu, Euskal Herrian disidentzia politikoaren aurka egiteko Auzitegi Nagusia bezalako epaitegi bereziek, egunero erabiltzen dituzten lege eta salbuespen neurriak.

Kezkatuta gaude estrategia errepresibo honetan estatuko botere desberdinek hartu duten egitekoa ikusita: elkar hartuta jokatzeko dute, ez dute euren esparrua errespetatzen eta defentsarik gabeko egoerak eragiten dituzte. Gainera, Espainiar botereek egoera hau legitimatzeko orduan, zenbait komunikabideren laguntza paregabea daukate. Komunikabide horiek, jendarteari gatazkak ulertzeko informazio argia eta garbia eman eta boterea kontrolatu beharrean; guztiz kontrako jarrera hartzen dute eta kontrolatzeko desinformatzea izaten da euren lana.

Hau guztia dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu Udalbatzak eztabaida eta onar dezan:

1.- Udal honek bere elkartasuna helarazi nahi die azken aste hauetan atxilotuak eta espetxeratuak izan diren pertsonen zein hauen senideei. Halaber, inkomunikazio erregimenak, legeria antiterroristak eta dispertsioak eragiten duten eskubideen urraketa salatu nahi du.

2.- Udal honek euren jardun politikoagatik espetxeratuak izan diren pertsona hauek berehala aska ditzatela exijitzen du.

3.- Udal honek Alderdien Legea berehala deroga dezatela ere galdegiten du. Lege hori berez da injustua, eta aukera politiko eta sozial bat desagerrarazteko ari dira baliatzen.

4.- Udal honek erakunde politiko, sozial eta komunikabideen aurka zabaldutako prozesuetan gutxieneko berme juridikorik ez duten ehundaka pertsonen bere elkartasuna helarazi nahi die

5.- Udal honek espainiar estatuaren jardunbide antidemokratiko, autoritario eta errepresiboak salatzen dugu. Jardunbide horrekin irtenbide bakarra gatazka luzatzea delarik.

6.- Udal hau osatzen dugunok ez gaude egoera hau onartu eta etsitzeko prest. Horrexegatik, gatazka honi irtenbide demokratikoa bilatzeko gure konpromisoa berresten dugu.

7.- Azkenik, onartutakoaren berri herritarrei eta komunikabideei jakinaraztea erabakitzen dugu.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza talde mistoaren izenean eta adierazten du espainiar estatu zapaltzaile eta faxistaren aginduz egindako atxilotetek garbi erakusten dutela herritarren sektore batek errepresioa sufritzen duela; aldi berean, Euskal Herriaren independentzia esijitzen du, herritarren multzo garrantzizko batek hala eskatzen duelako.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2009/10/27

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak (EAJ) abstentzio botoa emango diola mozioaren onarpenari, bertan faltan bilatzen duelako giza-eskubideen defentsa integrala.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV) eta Del Hoyo (EAJ-PNV), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako espainiar estatuaren azken eraso errepresiboari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,